

**BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIA**  
**2009KO JARDUERA-MEMORIA**

## AURKIBIDEA

|                                                                                                                      | Or. |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 1. Aurkezpena                                                                                                        | 3   |
| 2. Zer da Behatokia?                                                                                                 | 5   |
| 3. Kideak                                                                                                            | 7   |
| 4. Araudiaren garapena                                                                                               | 13  |
| 5. 2009-2012 Lan Plana                                                                                               | 14  |
| 6. BGIBren jarduerak 2009an                                                                                          |     |
| a. Osoko bilkurak                                                                                                    | 21  |
| i. 2009ko apirilaren 24ko bilera                                                                                     |     |
| ii. 2009ko abenduaren 16ko bilera                                                                                    |     |
| b. Lan-taldeak                                                                                                       | 23  |
| i. 2009ko otsailaren 25eko bilera                                                                                    |     |
| ii. 2009ko ekainaren 1eko bilera                                                                                     |     |
| iii. 2009ko uztailaren 8ko bilera                                                                                    |     |
| iv. 2009ko irailaren 28ko bilera                                                                                     |     |
| c. Kanpo-harremanak                                                                                                  | 28  |
| d. Webgunea                                                                                                          | 30  |
| e. Udal Harremanetarako Sarea                                                                                        | 34  |
| f. Informazioa kudeatzeko sistema integrala                                                                          | 36  |
| g. Baliabideen mapa                                                                                                  | 38  |
| h. Baliabideen atlasa                                                                                                | 40  |
| i. Bizkaiko Lurralde Historikoko zifrak                                                                              | 42  |
| j. Bizkaian Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako<br>laguntza-baliabideen eta programa espezifikoaren katalogoa | 45  |
| k. <i>Online</i> dokumentu-kudeatzailea                                                                              | 47  |
| l. Buletina-BGIB                                                                                                     | 49  |
| m. Gomendioak egitea                                                                                                 | 52  |

## 1. Aurkezpena



### Memoria honetan,

urtebeteko lanaren ondorio diren ekintzak jaso ditugu, eta horien artean, lau urteko ibilbidearen ondoren jada ohiko bihurtu diren zereginak daude: indarkeriaren biktima diren emakumeei emandako laguntzari buruzko datuak sistematikoki bildu, eta “Genero-indarkeriako... zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan. 2008” dokumentuan jaso dira; “... baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan (2009)” txostena egin da, zeinak adierazten baitu indarkeriaren biktimen beharrei ematen zaien erantzuna pixkanaka hobetuz doala baina batzuetan eta zenbait alderdiri dagokienez nahikoa ez dela; hiru hilean behin “Buletina-BGIB” tresna digitala argitaratzen da (baliabideen mapa eta dokumentu-kudeatzailea eguneratzea, informazio- eta orientazio-eskaerei erantzutea...); etab.

2009. urtean, halaber, “Bizkaiko Emakumeen aurkako Indarkeriaren gaineko Erakundearen Jokabideari buruzko Gomendioak eta Hobetzeko Proposamenak” dokumentua onartu eta argitaratu da. Adierazleen Lan Taldeak egin zuen, eta erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza emateko eta erasoak prebenitzeko jarraibideak ematen dira bertan, dagokien esku-hartze esparruetan aplikatzekoak.

Azkenik, joan den ekitaldian zehar egindako berrikuntzak eta hobekuntzak ere jaso dira memoria honetan, ondoren aipatuko ditugunak.

Behatokiak, 2008ko ekitaldiaren amaieran bukatutako ebaluazio-prozesuaren emaitzak kontuan hartuta, 2009-2012 epealdirako Lan Plana diseinatzeari ekin zion lehenik eta behin. Lan-plan hori izan da, hain zuzen, 2009. urteari dagokion memoria honetan aurkeztuko ditugun ekintzen oinarria.

Plangintza honetan, asmoak eta ahaleginak hiru alderdi hauen etengabeko hobekuntzara bideratu dira: prozedurak hobetzea; funtsezko helburuen lorpen-maila areagotzea, helburu horiek baitira Behatoki honen izateko arrazoia; eta pertsonen eta erakundearen lankidetzaren optimizatzea. Izan ere, pertsona eta erakunde horien prestutasunari eta lanari esker, iristen zaigun informazioa pixkanaka zabalagoa, objektiboagoa eta zehatzagoa da, eta

horrenbestez, Behatokiak gizarteari helarazten dizkion datuak eta jarraibideak ere halaxe dira. Azken finean, erabilgarriak izango dira gizarteak, kolektibo profesionalek eta administrazioek gure gizarteko emakumeen eta gure bizitzako emakumeenganako indarkeriaren aurka daramagun borrokan; behin-behinean indarkeria gutxitzea eta indarkeria-mota oro behin betiko desagerraraztea helburu duen borrokan, hain zuzen.

Helburu garrantzitsu da, eta ezinbestekoa Bizkaiko lehentasunen artean. Hala, helburu horren alde ahalik gehiena egiteko, Behatokiak alderdi hauek landu ditu batez ere 2009an, ohiko bere eginkizunak betetzeaz gain:

Informazio-bilketa eta komunikazioa hobetzea. Horretarako, gainbegiratze sakon bati ekin zaio: prozeduretan eta tresnetan hobekuntza-elementuak sartu dira, udalerriek eta mankomunitateek ematen dituzten datuak biltzea eta sistematizatzea errazagoa izan dadin. Izan ere, informazio erreala eta kalitatekoa izateko eta helarazteko iturri eta oinarri dira datu horiek.

Horrez gain, joan den urtean aurreko ekitaldiko datuen analisi kualitatiboa egin zen lehenengoz, "Genero-indarkeriako... zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan. 2008" izeneko dokumentuan jaso dena.

Zeregin berri horrekin, Behatokiaren helburua da datuen interpretatze-lanean sakontzea eta datuak interpretatzeko jarraibideak eskaintzea, eta orobat profesionalek, eragileek eta administrazioek gure Lurraldean errealitate gaitzesgarri honen egoera eta joera behagarriak zein diren jakitea errazagoa izatea.

Illo horretatik, Behatokiaren eginkizunaren eta azterketen hedatze-lana planifikatzen hasi ginen, informazioa eta kontzientziazioa ahalik urrutien eta sakonen iritsarazteko.

Azkenik, eskertu behar da, plazer handiz eskertu ere, pertsona eta erakunde guztiek egindako lana, haien laguntza ezinbestekoa baita emaitza esanguratsuak lortzeko eta guztion helburu honetan aurrera egiteko. Batez ere, beren jardueren informazioa biltzen eta helarazten duten erakundeei eskerrak eman nahi dizkiegu. Izan ere, eguneroko lan handi eta presazkoez gain, eginkizun hori egiten dute, jakitun baitira jardueri eta baliabideei buruzko datuak biltzea zeinen garrantzitsua den errealitate bidegabeko eta gogor hau ikusgarri egiteko eta bere horretan aurkezteko. Horrela, ahalik modurik eraginkorrenean esku hartu ahal izateko lehen urratsa eman dute. Beren ahalegin etengabeak gure esker ona merezi du, eta beren egitekoa ahal den neurrian errazten saiatzen gara.

*Juan M. Aburto Rike*

*Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiko presidentea*

## **2. Zer da Behatokia?**

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia organo aholku-emailea da, martxoaren 18ko 53/2003 Foru Dekretuak sortua, dekretu horretan jasotzen den osaketa, gerora, azaroaren 9ko 188/2004 Foru Dekretuak aldatu zuen. Behatokiak xedetzat du Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumearen aurkako indarkeria-egoeren eta arlo horretan abiarazi diren erakunde-politiken eraginaren –politika horien garapenari, ezarketari eta eragindako biztanleriarengan duen eraginari dagokionez– jarraipena eta zainketa egin ahal izango duen informazio-sistema eratzea, eskuragarri dauden baliabideak behar erreale tara egokitzeko.

Behatokiak bi helburu nagusi hauek ditu:

1. Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurka gertatzen diren indarkeria-egoeren errealitatea eta bilakaera zein den jakitea.
2. Erakunde publikoek genero-indarkeriaren arloan eskaintzen dituzten zerbitzuei eta prestazioei buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak egitea.

Helburu horiekin bat etorritz, Behatokiari esleitutako funtzioak hauek dira:

1. Bizkaiko emakumeen aurkako genero-indarkeriako egoerei buruzko datuak jasotzeko aplikazio informatikoa diseinatzea, martxan jartzea eta mantentzea.
2. Genero-indarkeriako egoeretan laguntza emateko esparruetan eskuragarri dagoen informazioa biltzeko eta haren analisisa egiteko organo iraunkorra izatea.
3. Zerbitzuek emakumearen aurkako indarkeriaren arloan erabiltzen dituzten informazio-sistemak eta adierazleak hobetzera zuzendutako gomendio eta proposamenak egitea.
4. Antzeko beste erakunde batzuekin harremanak izatea eta lankidetzan jardutea. Beste administrazioetan abiarazitako eta planteatutako esperientziak eta erreformak ezagutzea.

5. Genero-indarkeriaren hedadurari eta bilakaerari buruzko diagnosi-txosten teknikoak eta azterketak egin daitezen proposatzea.
6. Genero-indarkeriaren biktimei zuzendutako neurri integralen egokitasuna aztertzea, beren ondorio eta eraginak ikertuz eta praktika onen adibideak aztertuz.
7. Bizkaiko genero-indarkeriaren eremuan eragina duten baliabideen eskaintzak hobetzea bultzatzera zuzendutako gomendio eta proposamenak egitea, eta horiek dagozkien erakundeetara iritsaraztea.
8. Genero-indarkeriaren eremuan ikertzen duten taldeen azterketa- eta analisi-lanak errazteko truke- eta komunikazio-foro bat eratzea.
9. Behatokiak urtean zehar garatzen dituen jarduerari buruzko urteko txostena igortzea, eta horri buruz jakinaraztea Bizkaiko Batzar Nagusietan.
10. Bere antolaketa- eta funtzionamendu-araudia egitea.

### **3. Kideak**

Behatokiak administrazioaren hiru mailetako ordezkari instituzionalak ditu (hau da, EAEko ordezkariak, Bizkaiko Foru Aldundikoak eta tokikoak), bai eta emakumeen elkarteetako ordezkariak ere. Horien guztien helburua da emakumeen aurkako indarkeriaren fenomenoari era koordinatuan erantzutea, beren esku-hartze esparruetan jardunez.

2009an, Behatokiko partaide diren zenbait erakundek ordezkariak aldatu, eta beste batzuk izendatu dituzte. Hala, ekitaldiaren amaieran, Behatokiaren osoko bilkura hauek osatzen dute:

#### **LEHENDAKARITZA**

Gizartekintzako foru-diputatua

*Juan M. Aburto Rike* jauna

#### **LEHENDAKARIORETZA**

Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia (Gizartekintza Saila, BFA):

*Jon Etxebarria Orue* jauna, Gizarteratzea Sustatzeko zuzendari nagusia.

Ordezkoa: Jon Andoni Rekagorri Barrenetxea jauna, Plangintza, Azterlan eta Ikuskapeneko zuzendari nagusia.

#### **IDAZKARITZA**

Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia (Gizartekintza Saila, BFA):

*Berta Díaz Arbesú* andrea, Emakumearen Ataleko burua.

Ordezkoa: Amaia Antxustegi Ziarda andrea, Emakume eta Familia Zerbitzuaren Administrazio Nagusiko teknikaria

## MAHAIKIDEAK

### Bizkaiko Foru Aldundia

#### ↑ Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Saila:

*María Dolores Menchada Araluce* andrea, Emakume eta Familia Zerbitzuko burua

Ordezkoa: Elena Iturrizaga Larrabeiti andrea, Plangintza eta Ikerlanetako Zerbitzuko burua

Gizartekintza Sailari dagokio, foru-diputatuaren zuzendaritzapean, indarreko antolamendu juridikoak Bizkaiko Foru Aldundiari aintzatesten dizkion gizarte-zerbitzuen arloan, eskumenen jarduna, bai eskumenen eratxikipen juridiko positibo zuzenaren bitartez, bai zeharka beste administrazio publikoei lehenago atxikiak zitzaizkien eginkizun eta zerbitzuen intsuldaketei buruzko xedapenetatikoaren bitartez.

#### ↑ Bizkaiko Foru Aldundiaren Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Saila:

*Anselmo Ardanza Sustatxa* jauna, Funtzio Publikoko zuzendariordea

Ordezkoa: Miren Begoñe López-Uribarri Goicolea andrea, Langileen Zerbitzu Juridikoko burua

Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Sailak du eskumena udal-harremanen arloan eta herri-administrazioko gaietan Bizkaiko Lurralde Historikoan Foru Administrazioari aitortutako eskumenak betetzeko. Herri-administrazioari dagokionez, sail honi zeregin hauek dagozkio: foru-langile publikoen erregimen juridikoa; foru-sail guztien interesekoak diren zerbitzuak eta jarduerak; barne-komunikazioa; erakunde-koordinazioa; eta Foru Aldundiaren zeinahi gai, baldin eta berariaz beste sailen bati esleitu ez bazaio.

#### ↑ Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi Sustapen Saila

*Cruz Gorbeña Birichinaga* andrea, Ekonomi Sustapena Zerbitzu Orokorren Zerbitzuko burua

Ordezkoa: Maite Egusquizaga López de Barrera andrea, Lan Zerbitzuko burua

Ekonomi Sustapen Sailari, beste jarduera-eremuez gain, Bizkaian enplegua sustatzea eta gizarte-egoera ahulean dauden kolektiboen enplegua sustatzea dagozkio: Bizkaiko langabetuak gizareratzen eta lan-munduan sartzen laguntzeko prestakuntza, bai eta pertsona horien gaitasunak eta potentzialtasunak hobetzea ere; kolektibo behartsuetako pertsonen prestakuntza; azpiegitura industrialak sortzea, enplegua sortzen lagun dezaten, eta azpiegitura estrategikoak sortzea Bizkaiko turismo- eta arrantza-sektoreetan; eta prestakuntza- eta enplegu-gaietan jarduten diren beste administrazio eta gizarte-eragile batzuekin hartu-emanak izatea eta koordinatzea

#### ↑ Bizkaiko Foru Aldundiko diputatu nagusiaren kabinetea:

*Josu Bergara López* jauna, Berdintasunerako eta Herritarren Eskubideetarako zuzendari nagusia

Ordezkoa: Cristina Sarduy Gainza andrea, Genero Politiketako idazkari teknikoa

Diputatu nagusiaren kabinetea, uztailaren 2ko 274/2003 Foru Dekretuak sortua, Diputatu Nagusiaren laguntza-organoa da, eta haren mende dago zuzenean.

Berdintasuneko eta Herritarren Eskubideetarako Zuzendaritzari Bizkaiko Lurralde Historikoko biztanleen eskubideak babestea dagokio, desberdintasunekiko errespetua, eskubideen unibertsaltasuna eta aukera-berdintasuna oinarri hartuta.

Genero Politiketako Idazkaritza Teknikoari Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikak bultzatzea, programatzea, ebaluatzea eta haiei buruzko aholkularitza-lanak egitea dagozkio.

## Eusko Jaurlaritza

### ↑ Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea

*María Silvestre Cabrera* andrea, zuzendaria

Ordezkoa: Ander Bergar Sautua jauna, Kooperazio Arloko arduraduna

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea erakunde publikoa da, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariaren Idazkaritzari atxikia. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra gizarte-, politika-, ekonomia- eta kultura-arlo guztietan lortzearen alde lan egiteko sortu zen. Gure erkidegoan sexuaren arabera diskriminazio- eta desberdintasun-egoerak aztertzeako tresna da, eta hori oinarri hartuta, neurri zuzentzaileak bultzatzea du helburua.

### ↑ Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila:

*Mariola Serrano Argüeso* andrea, Genero Indarkeriaren Biktimen Laguntzarako zuzendaria

Maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuak, uztailaren 30eko 20/2009 Dekretuak aldatu zuenak, 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, Herrizaingo Sailari dagokio, beste jarduera-eremu batzuez gain, "Genero-indarkeriaren biktimez arduratzeko politikak zuzendu eta koordinatzea". Halaber, Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuak 10. artikuluan jasotzen du Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak zuzendu eta koordinatu behar duela Eusko Jaurlaritzaren politika genero-indarkeriari dagokionez.

### ↑ Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Herri Administrazio Saila:

*Marta Higuera Garrobo* andrea, Justiziako zuzendaria

Abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuak, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenak, xedatzen du Justiziako Sailburuordetzaren egitekoak hauek direla, besteak beste: Botere Judizialarekiko eta Justizia Administrazioan jarduten duten beste erakunde eta organoekiko harremanen inguruan Sailak dituen eskumenak betetzea; administrazio horrek ongi jarduteko behar dituen baliabideak jartzea; giza eskubideak babestea eta defenditzea; Justizia Agintaritzak xedatutako neurriak betearaztea; eta espetxeei buruzko eskumenak gauzatzea.

## Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerri eta mankomunitateak

- ↑ Bilboko Udala:  
*Nekane Alonso Santamaría* andrea, zinegotzia
- ↑ Ermuko Udala:  
*Natividad Alonso Estalayo* andrea, zinegotzia
- ↑ Ugao-Miraballesko Udala:  
*Izaskun Landaia Larizgoitia* andrea, alkatea

53/2003 Foru Dekretuak, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia sortu duenak, ezarritakoaren arabera, EUDEL-Euskal Udalerrien Elkarteak izendatuko ditu Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerri eta mankomunitateetako hiru ordezkari, Behatokiko osoko bilkuran parte har dezaten. EUDEL-Euskal Udalerrien Elkarteak etxeko tratatu txarren eta sexu-erasoen biktimak diren emakumeentzako laguntza hobetzeko erakundearen arteko Akordioa sinatu zuen erakundeetako bat da, eta horrez gain, akordio horren Jarraipen Batzordeko kide ere bada. EUDEL-Euskal Udalerrien Elkarteak Euskal Autonomia Erkidegoko ia udalerri guztiek osatzen dute. Hala, beste erakunde guztiekin harremanetan jartzeko ordezkari egoki eta eraginkorra da, politika publikoak koordinatzeko eta haiei buruzko adostasunetara iristeko.

## Bizkaiko Lurralde Historikoko elkarte eta erakundeak

- ↑ Bizkaiko Foru Aldundiko Genero Politiken Arloaren baitan sortutako “Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Foroa”-ren ordezkari gisa:  
*SIM ROSI-Emakume ijitoen elkarteak.*  
*Rosa Jiménez Jiménez* andrea

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Foroa foro aholku-emailea da, eta kontuan hartzen dira bertan Bizkaiko Lurralde Historikoan jarduten diren emakumeen kolektiboek egindako planteamenduak. Era berean, Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasun eta Genero Politiketarako Foru Planaren jarraipenerako mekanismo dinamikoak ezartzen ditu.

- ↑ Genero Indarkeriaren arlotik:  
*ARGITAN–Emakumearen Zentro Aholku-emailea*  
*Karmele Ozaita Andrés* andrea, presidentea  
Ordezkoa: Blanca Pangua Bedia andrea, diruzaina

ARGITAN Emakumearen Zentro Aholku-emailea 1996ko martxoan jarri zen martxan. Desberdintasuneko, diskriminazioko eta sexu-indarkeriako egoerak jasaten dituzten emakumeen beharrei erantzuten saiatzen da ARGITAN, kontuan hartuta, betiere, egoera horiek hainbat modutara ager daitezkeela. Batez ere lege- eta lan-aholkularitza, sexu- eta psikologia-laguntza eta gizarte-arloetako aholkularitza ematen dira. Horiez gain, hainbat gairi buruzko jarduerak ere egiten dituzte, betiere genero-ikuspegia oinarri hartuz (tailerrak, ikastaroa, hizketaldiak, eztabaidak), eta denuntzia-, aldarrikapen- eta kontzientziazio-lana ere egiten dute.

## ↑ Genero Indarkeriaren arlotik:


AUZOLAN laguntza psiko-sozialerako modulua

*Marta Dolado Galíndez* andrea, lege-aholkularia

Ordezkoa: Ana Fernández de Garayalde Ulacia andrea, soziologoa

Auzolan Laguntza Psiko-sozialerako Modulua irabazi-asmorik gabeko elkartea da, 1982. urteaz geroztik lanean diharduena osasun-maila hobetzen, osasuna alderdi bio-psico-sozialetik landuz. Laguntza psikologikoa eta lege-aholkularitza eskaintzen ditu, bai eta helduentzako, haurrentzako eta gazteentzako osasun mentala, ugaltze-osasuna eta alkoholismoari eta toxikomaniei aurre egitea lortzeko neurriak ere.

**BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIAREN ORGANIGRAMA (2009)**



## **4. Araudiaren garapena**

Behatokiaren jarduera arau hauek xedatzen dute, erakundearen sorkuntzari, osaketari eta funtzionamenduari dagokienez:

 53/2003 FORU DEKRETUA, martxoaren 18koa, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia sortu duena. (BAOren 63. zk., 2003ko apirilaren 1ekoa).

 188/2004 FORU DEKRETUA, azaroaren 9koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena; beraren bidez Bizkaian emakumeen aurkako indarkeriaren behatokia sortu duen martxoaren 18ko 53/2003 Foru Dekretua aldarazi da. (BAOren 226. zk., 2004ko azaroaren 23koa).

 5.016/2005 FORU AGINDUA, apirilaren 18koa, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko araudia onartu duena. (BAOren 82. zk., 2005eko maiatzaren 3a).

## 5. 2009-2012 Lan Plana

### 5.1. BGIBren 2009-2012 Lan Planaren aurrekariak eta elaborazio-prozesua

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren jarduera, bere ibilbidearen lehen etapan (2004-2008), 2004-2008 Lan Planari jarraiki egin da. Lan Plan hori 2004ko urriaren 22ko osoko bilkuran onartu zen, foro horretan urte horretako uztailaren 25ean aurkeztu ondoren.

Lan Planean, Behatokiak egin beharreko jardueren programazioa jaso zen, Behatokia sortzen duen Dekretuan ezarritako helburu eta funtzioak kontuan hartuta. Planaren indarraldia, halaber, bi etapatan banatzen da, eta bakoitzean egindako jarduerak helburu desberdinak izan dituzte:

- **Lehen etapa (2004-2006):** organoaren funtzionamendu-egiturak sortu ziren, bai eta barne-funtzionamenduaren araudia ere, Behatokiaren sorrera-dekretua eduki praktikoz betetzeko. Fase honetan, Behatokiaren funtsezko jarduera jarri zen martxan, Behatokiaren helburuak eta funtzioak praktikan zehaztuz, eta alderdi hauek landu ziren, batez ere: errealitatea ezagutzeko prozesuak, lan-sareen artikulaziorako prozesuak, datuak biltzeko prozesuak eta Bizkaian genero-indarkeriako gaitetan jarduten duten erakundeekin harremanetan jartzeko prozesuak. Organoaren funtzionamendu-oinarriak ezarri ziren, bai eta lan-mekanismoak eta lan-plana egiteko tresnak eta baliabideak ere. Horiez gain, BGIBren jardueraren emaitza materialak ere zirriborratu ziren. BGIBren historian etenik gabe egin diren jarduera gehienak orduan abiarazi ziren.
- **Bigarren etapa (2006-2008):** tresnak hobetu ziren, funtzionamendu-prozesuak finkatu ziren, eta emaitza praktikoen ekoizpenean erregulartasuna lortu zen. Agerian geratzen da, hala, BGIBren sorrera-dekretuak eta Behatokiaren Lan Planak ezarritako helburuak eta funtzioak edukiz betetzeko egindako ahalegina. Etapa honen amaieran, dokumentu bat egin zen, prebentzio-jarduerari eta laguntza emateko jarduerari buruzko gomendioak jasotzen dituen.

Azkenik, etapa ixteko, ebaluazio bat egin zen: Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren ebaluazioa, 2004-2008ko epealdia. Behatokiaren beraren diseinua eta Behatokiaren prozesuak, jarduerak eta emaitzak ebaluatu ziren bertan. Dokumentu horretan, alderdi hauetan hobekuntzak egiteko premia jasotzen da:

- Egitura- eta kudeaketa-alderdiak.
- Errealitatea eta haren bilakaera ezagutzeko prozesua
- Emaitzak jakinarazteko eta hedatzeko prozesua.
- Gomendioak emateko prozesua.

2009an, jarduera-programa berri bat egin zen 2009-2012 epealdirako. Hona hemen plan horren jarduera-irizpide nagusiak:

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Sailaren 2008-2011 epealdiko Plan Estrategikoarekin bat egitea.
2. BGIBren lehen etapari (Behatokia sortu eta martxan jarri zenekoari) amaiera emateko egindako ebaluazioko emaitzak aplikatzea. Horren helburua da, hain zuzen, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren sorrera-dekretuan zehaztutako helburuen lorpen-maila areagotzea.
3. Lan-mekanismoak, informazio-fluxuak, lan-tresnak eta sortutako produktuen euskarriak berrikustea, haiek guztiak optimizatzeko eta lan-plan berrira egokitzeko.
4. BGIB, Bizkaiko genero-indarkeriari dagokionez, informazio- eta ezagutza-esparruan erreferente bihurtzera bideratutako plangintzari ekitea.

## Ardatzen eta helburuen matrizea



Lan-plan berriak oraindainoko zereginak finkatu nahi ditu, jomugatik atera gabe; izan ere, errealitatea ezagutzeko jarduerak etengabe hobetzea du helburu, eta analisi-jardueretan eta gomendio eta hobetzeko proposamenak egiteko jardueretan sakontzea.

Horretarako, alderdi hauekin lotutako jarduerak ezarri ditu:

- ◆ Udal Harremanetarako Sarea sendotzea
- ◆ Datuak biltzeko prozesua hobetzea
- ◆ Emaizak ikusgarri egiteko eta hedatzeko prozesua hobetzea
- ◆ Datuen analisia eta joeren identifikazioa hobetzea
- ◆ Gomendioak egiteko prozesua hobetzea
- ◆ BGIBen egitura zabaltzea
- ◆ Jardunbide onei buruzko txostena egitea
- ◆ Epealdiaren ebaluazioa

### Eranskinak kontsultatzeko:

[http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero\\_Indarkeria/ca\\_index.html](http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/ca_index.html)

[2009-2012 Lan Plana](#)

## **5.2. Lan Planaren garapenaren laburpena (2009ko ekitaldia)**

2009an, aurreko ekitaldietan bezalaxe, Behatokiaren jarduera bere sorrea-dekretuan zehaztutako helburu bikoitza lortzera bideratu da, batez ere. Lan-plan berria kontuan hartuz egindako zereginen sintesi bat jaso dugu hemen:

### **5.2.1. Administrazio- eta funtzionamendu-zereginak**

Aipatutako lan-plan berria egin eta onartu da, 2009-2012 epealdirako zereginak ezartzen eta konpromisoak denboran zehazten dituela. Horrez gain, atal honetan, BGIBk batzordean eta osoko bilkuran jardunez izan duen funtzionamendutik eratorritako jarduerak jaso dira:

2009ko ekitaldian, Behatokiaren osoko bilkurak bi bilera egin zituen, apirilaren 24an bata eta abenduaren 16an bestea. Horietan, honako gai hauek aztertu ziren:

- BGIBren 2008ko jarduera-memoria aurkeztea eta onartzea.
- “Bizkaiko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundeen jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak” izeneko dokumentua onartzea.
- BGIBren 2009-2012 Jarduera Plana aurkeztea eta onartzea
- “Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan. 2008. 2004-2008 konparatiba”.
- Osoko bilkura osatzen duten pertsonen dagokienez egindako aldaketak jakinaraztea eta pertsona horien aurkezpen publikoa egitea. Behatokiako partaide diren erakundeei dagokienez egindako aldaketak jakinaraztea eta BGIBren organigrama berria aurkeztea
- Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako etxeko indarkeriari buruzko inkesta berriz egingo dela jakinaraztea.

Adierazleen Lan Taldea, bestalde, lau aldiz bildu da: otsailaren 25ean, ekainaren 1ean, uztailaren 8an eta irailaren 28an. Lan-bileretan, alderdi hauek landu ziren batik bat:

- BGIBren 2004-2008 epealdiko ebaluazioaren emaitzak aurkeztea.
- “Bizkaiko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundeen jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak” dokumentua osoko bilkuran onartzeko prozesuari buruzko informazioa.
- Lan-taldearen jardueraren 2009ko programazioa.
- Lurraldeko datuak biltzeko fitxa eta 2009ko informazioa biltzeko prozesua hobetzea
- BGIBren 2009-2012 Lan Plana aurkeztea
- BGIBren eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Etxeko eta Genero Indarkeriaren aurkako Behatokiaren arteko lankidetzari buruzko informazioa: EUROsociAL programa.
- “Laguntza juridikoa, laguntza psikologikoa, familietan esku-hartze espezializatua eta babesak ematea etxean indarkeria jasaten duten emakumeentzat. Foru Aldundiaren, udalerrien eta mankomunitateen baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan (2009)” izeneko dokumentua egitea, berrikustea eta onartzea.
- “Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan. Gizarte babesaren, Poliziaren eta Justiziaren arloak (2008)” dokumentua egitea, berrikustea eta onartzea.
- 

Era berean, eta Behatokiaren sorrera-dekretuan esleitzen zaizkion funtzioei jarraiki, Behatokiak urtero memoria bat egiten du, aurreko ekitaldian egindako jarduerak jasotzen dituenak. Horrela, 2009. urtearen hasieran 2008ko jarduera-memoria egin zen, apirilean egindako osoko bilkuran aurkeztu eta onartu zena.

### **5.2.2. Hedapenaren eta harremanen gaineko zereginak: GBIBren harremanak kudeatzea eta jardueren eta produktuen hedapena kudeatzea**

Komunikazio-foroari dagokionez, aurreko ekitaldietan bezalaxe, jasotako informazio-eskaera guztiei erantzun die BGIBk 2009an. Eskaera horiek askotariko eragileek bidali dituzte, eta hainbatetan administrazio publikokoak izan dira. Halaber, antzeko beste erakunde batzuetan parte hartzeko eta haiekin harremanak izateko funtzioari jarraiki, 2009an BGIBk laguntza eman dio BJKNren Etxeko eta Genero Indarkeriaren aurkako Behatokiari, Europako eta Hego Amerikako administrazio publikoen arteko esperientziak trukatzeko programa batean parte hartuz.

Jarduerak eta produktuak hedatzeari eta harremanei dagokienez, Behatokiaren webgunea organoaren berri emateko eta organoa ikusgarri egiteko tresna nagusia da; genero-indarkeriari buruzko informazioa hedatzeko gunea da, bai eta Behatokiaren eta erakundeen, profesionalen eta, oro har, herritarren arteko trukerako gunea ere. Horregatik, aurreko urteetako ildoari jarraiki, 2009an webgunea mantentzeko eta sendotzeko ahalegina egin da. Hala, Behatokiaren jarduerari buruzko informazio eguneratua eskaintzen da, Behatokiak egiten dituen dokumentuak argitaratzen dira, eta genero-indarkeriari buruzko material garrantzitsuak eskura daitezke bertan.

Horrez gain, aldizkako komunikazio-tresna den aldetik, Behatokiak hiru hilean behin argitaratzen den albisteen buletina edo *newsletter*-a dauka, *Buletina-BGIB* izenekoa, 2009an lau zenbaki editatu eta argitaratu dituenak: 12. zk. martxoan, 13. zk. ekainean, 14. zk. irailean eta 15. zk. abenduan.

### **5.2.3. Urteko txostenak: BGIBren produktuak eta txostenak egitea**

Lan-plan berriaren lehen urtean, Behatokiaren lehentasuna izan da datuen analisia eta joeren identifikazioa hobetzea. Horretarako, BGIBk ekoizten dituen txostenetan analisi-lerro bat garatu da.

Alde horretatik, "Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan. Gizarte babesaren, Poliziaren eta Justiziaren arloak (2008)" dokumentuak berrikuntza bat dakar: atal deskribatzaile bat, 2004-2008 epealdiarekiko konparazioa ere egiten duena. Horrez gain, erabiltzaileek kontsultaren bat egin nahi izanez gero, datuak eskuratzea errazagoa da orain, datuen aurkezpen-modua hobetu egin baita.

Behatokiak beste alderdi bati buruz ere ematen du informazioa aldizka; hau da, indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko erakundeek dituzten baliabideei buruz. Horiei dagokionez, “Laguntza juridikoa, laguntza psikologikoa, familietan esku-hartze espezializatua eta babesa ematea etxean indarkeria jasaten duten emakumeentzat. Foru Aldundiaren, udalerrien eta mankomunitateen baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan” dokumentuaren urteko beste edizio bat argitaratu da.

Horrekin batera, baliabide hauen mantentze-lanak egiten jarraitu da: “Genero-indarkeriaren alorreko baliabideen mapa”, “Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Baliabideen Bizkaiko Lurralde Historikoko Atlas” eta “*online* dokumentu-kudeatzailea”. Lurraldeko toki-erakundeek indarkeriaren arloan dituzten zerbitzu espezializatuak buruz hainbat informazioa dute tresna horiek. Gizarte-babesaren, poliziaren, justiziaren, osasunaren eta elkartearen arloko baliabideak ere jasotzen dituzte, genero-indarkeriako egoeretan laguntza ematearekin zerikusia dutenak; aurki daitezke, halaber, berdintasun-planak eta -programak, indarkeriaren aurkako planak eta programak, eta Lurraldeko udalerri eta mankomunitateetan ezarritako koordinazio-protokoloak, bai eta gaiarekin lotutako beste dokumentu batzuk ere.

2009an, “Bizkaiko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundearen jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak” izeneko dokumentua ere onartu eta argitaratu da, 2008an zehar egin zena.

#### 5.2.4. Datuak biltzea

Lan-lerro honek aurreko atalean jasotakoarekin du zerikusia.

Behatokiak, 2009an zehar, datuak biltzen jarraitu du; hala, indarkeriaren biktima diren emakumeei gizarte-babesaren, poliziaren eta justiziaren arloetan emandako laguntzen kopurua aztertu du, eta jaso du, baita ere, egoera horiei laguntza eman dieten baliabideek zer ezaugarri dituzten. Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren sailez gain, Lurraldeko toki-erakunde guztiek hartu dute parte urteroko prozesu honetan, beren jardueren buruzko informazioa emanez.

2007. urteaz gero, Behatokiak galdetegi digital pertsonalizatu bat dauka udal eta mankomunitateentzat, eskatutako datuak betetzea, bidaltzea eta tratatzea errazagoa izan dadin haietentzat. Aurreko urtean bezala, tresna hori hobetu egin da, hobekuntza teknikoak eta edukizkoak egin baitira.

## 6. BGIBren jarduerak

### a. Osoko bilkurak

Behatokiaren antolaketa- eta funtzionamendu-araudiaren arabera, Behatokiaren ohiko osoko bilkura urtean bitan egingo da; eta salbuespenez, lehendakaritzak deitzen duen guztietan, lehendakaritzak berak eskatuta edo gutxienez kideen herenak eskatuta.

2009an, deitutako bi bileretara joan ziren Behatokiaren ordezkariak.

| URT. | OTS. | MAR. | API. | MAI. | EKA. | UZT. | ABU. | IRA. | URR. | AZA. | ABE. |
|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|
|      |      |      | 24   |      |      |      |      |      |      |      | 16   |

#### ■ 2009ko apirilaren 24ko bilera.

Behatokiaren osoko bilkurako partaideen ordezkariak dagokienez izandako aldaketak jakinarazi dira, eta ordezkari berriak aurkeztu dira.

Behatokiaren 2008ko jarduera-memoria aurkeztu eta onartu da.

“Bizkaiko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundearen jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak” izeneko dokumentua onartu da.

BGIBren 2009-2012 epealdiko Jarduera Plana aurkeztu eta onartu da, eta indarraldian egoki iritzitako iradokizunak gehitzeko aukera irekita utzi da.

## ■ 2009ko abenduaren 16ko bilera

Behatokiaren osoko bilkurako partaideen ordezkariak dagokienez izandako aldaketak jakinarazi dira, eta ordezkari berriak aurkeztu dira.

Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Gaietako Sailak BGIBn ordezkaritza zuzena izateari uko egin diola jakinarazi da. Haren iritziz, Eusko Jaurlaritzaren gaur egungo antolaketa kontuan hartuta, ez da beharrezkoa aipatutako sailak BGIBn ordezkaritza izatea. Izan ere, gaiari buruzko zuzendaritza bat dago, Herrizaingo Sailera atxikita dagoena eta BGIBn ordezkaritza duena. Beraz, azken horri dagokio genero-indarkeriari lotutakoak koordinatzea gobernu-egitura berrian.

“Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan. 2008” dokumentua aurkeztu da, eta edukietan izandako berrikuntzak azaldu dira, bai eta datuen antolaketan eta aurkezpenean egindako hobekuntzak ere.

“Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako etxeko indarkeriari buruzko inkesta” berriz egingo dela jakinarazi da.

### **Eranskinak kontsultatzeko:**

[http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero\\_Indarkeria/ca\\_index.html](http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/ca_index.html)

[2009ko apirilaren 24ko bilera](#)

[2009ko abenduaren 16ko bilera](#)

## **b. Adierazleen Lan Taldea**

Behatokiaren osoko bilkurak 2004ko urriaren 22an egindako bileran, Adierazleen Lan Taldea sortzea onartu zen. Lan-talde hori emakumeen aurkako etxeko indarkeriaren fenomenoaren oinarri homologagarri eta denboran konparagarri batean neurtzeko beharrezkoak diren adierazleak eratzeko sortu zen.

2009an, Adierazleen Lan Taldean, ondoren aipatzen ditugun erakundeek eta pertsonak hartu zuten parte:

- ↑ Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Saila:  
*Berta Díaz Arbesú* andrea, Emakumearen Ataleko burua  
(*Lan-taldearen koordinatzailea*).  
Ordezkoa: Maria Dolores Menchaca Araluce andrea, Emakumearen eta Familiaren Ataleko burua
- ↑ Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi Sustapen Saila:  
*Mikel Madariaga Landajo* jauna, Saileko teknikaria  
Ordezkoa: Alberto Renedo Anchía jauna, Saileko teknikaria
- ↑ Bizkaiko Foru Aldundiaren Diputatu Nagusiaren kabinetea  
*Cristina Sarduy Gainza* andrea, Genero Politiketako idazkari teknikoa
- ↑ Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundea:  
*Raquel Raposo Acevedo* andrea, Programa Sustatzeko arduraduna
- ↑ Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila:  
*Marimar Rueda Fernández* andrea, Estatistika Arloko burua  
Ordezkoa: Jose Luis Yanguas Pérez jauna, Estatistika Arloko teknikaria
- ↑ Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila (2009ko maiatzera arte):  
*Kontxi Gabantxo Laka* andrea, Saileko aholkularia
- ↑ Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila (2009ko maiatzera arte):  
*Isabel Paredes Zabala* andrea, Saileko teknikaria

## Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerri eta mankomunitateak (EUDEL)

- ↑ Gernika-Lumoko Udla (titularra)  
*Ixone Badiola Lekue* andrea, Gernika-Lumoko Udaleko Berdintasuneko teknikaria
- ↑ Ermuko Udala (ordezkoa)  
*Begoña Fernández Alcalde* andrea, Ermuko Udaleko Berdintasuneko teknikaria
- ↑ EUDEL (kolaborazioa)  
*Mireia Espiau Idoyaga* andrea, EUDELeko Berdintasuneko teknikaria

## Bizkaiko Lurralde Historikoko elkarte eta erakundeak

- ↑ ARGITAN–Emakumearen Zentro Aholku-emailea  
*Karmele Ozaita Andrés* andrea, lehendakaria  
Ordezkoa: Blanca Pangua Bedia andrea, diruzaina
- ↑ AUZOLAN laguntza psiko-sozialerako modulua:  
*Marta Dolado Galíndez* andrea, abokatua  
Ordezkoa: Miren Edurne Fernández Arias andrea, abokatua

2009an, Behatokiaren Adierazleen Lan Taldeak lau bilera egin ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Sailaren bulegoetan, Behatokiak han baitu egoitza.

| URT. | OTS. | MAR. | API. | MAI. | EKA. | UZT. | ABU. | IRA. | URR. | AZA. | ABE. |
|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|
|      | 25   |      |      |      | 1    | 8    |      | 28   |      |      |      |

### ■ 2009ko otsailaren 25eko bilera

Gomendioak egiteko prozesuaren berri eman zaio lan-taldeari; azaldu da lan-taldeak “Bizkaiko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundeen jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak” dokumentua (2008an egina) onartu zuela eta, hortaz, osoko bilkurara eraman zela.

“Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiari buruzko Ebaluazioa (2004-2008)” azterketa aurkeztu da, osoko bilkurak 2008ko abenduaren 15ean ezagutua eta onartua.

Lan-taldearen 2009ko Lan Plana azaldu eta onartu da, eta, organoaren helburuei jarraiki, Lan Planak bi jarduera-lerro hauek ezarri dira:

-Emakumeen aurkako indarkeriako egoerak eta haien bilakaera ezagutzeari dagokionez, Bizkaiko baliabideei eta toki-erakundeek emandako laguntzen kopuruari buruzko datuak biltzeko plangintza aurkeztu da.

-Gomendioak egiteari dagokionez, adostu da lan-taldearen jardura osoko bilkurak 2009ko lehen bileran ebatziko duenaren baitakoa izango dela.

Lurraldeko Datuak Biltzeko Fitxan 2009rako egin beharreko hobekuntzak aztertu eta onartu da.

#### ■ **2009ko ekainaren 1eko bilera**

Jakinarazi da lan-taldeak egindako “Bizkaiko emakumeen aurkako indarkeriaren gainekeo erakundeek jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak” dokumentua onartu zela 2008ko apirilaren 24an egindako osoko bilkuran, alegazioak egiteko ezarritako epean aurkeztutako alegazioak sartu ondoren.

Dokumentua hedatze aldera eta oso luzea dela kontuan hartuta, paperean argitaratuko dela azaldu da, eta argitalpen horrek hirugarren kapitulua jasoko duela. Argitalpena Lurraldeko udal guztiei eta gaiarekin zerikusia duten erakundeei banatuko zaie.

“BGIBren Lan Plana 2009-2012” aurkeztu da, 2009ko apirilaren 24ko osoko bilkuran onartua. Aurreko laurtekoaren aldean egindako berrikuntzak azaldu dira batez ere. Alde horretatik, adierazleak sortzeko premia hauteman da, BGIBk erakundeei proposatutako gomendioen jarraipena eta haien balantzea egiteko, ezarritako programazioa kontuan hartuta.

Martxoaren 27an egindako bileraren berri eman da. Bilera hori egin zen Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Etxeko eta Genero Indarkeriaren aurkako Behatokiak egindako eskaerari erantzuteko. Izan ere, Behatoki horrek EUROsociAL Justicia ekimenaren pasantia-fasean laguntzeko eskatu zuen, BJKNk proiektu horretan parte hartzen baitu. BGIBren lan-taldearen ohiko egoitzan, lan-taldeko kideak eta BFaren Gizartekintza Saileko ordezkariak bildu ziren, lan-bilera bat egiteko Erdialdeko Amerikako delegazio batekin eta BJKNren Behatokiko ordezkariekin. Bilera horren helburua BGIBn egindako lana erakustea zen.

Lurraldeko datuak biltzeko fitxa erakutsi da, aurreko bileran adostutako hobekuntzak sartuta dituela.

Datuak biltzeko prozesuaren garapenaren berri eman da tokiko, Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako erakundeei, emakumeen aurkako etxeko indarkeri dagokionez 2008an Bizkaiko Lurralde Historikoan emandako laguntzei buruzko datuak izan ditzaten eta laguntza hori emateko 2009an zer baliabide dauden jakin dezaten.

Izandako gertakarien, hautemandako arazoen eta martxan jarritako konpontze-mekanismoen berri eman da.

## ■ 2009ko uztailaren 8ko bilera

“Laguntza juridikoa, laguntza psikologikoa, familietan esku-hartze espezializatua eta babesa ematea etxean indarkeria jasaten duten emakumeentzat. Foru Aldundiaren, udalerrien eta mankomunitateen baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan (2009)” dokumentua aurkeztu eta onartu da.

Dokumentuko datuak berrikustean, ikusi da erakunde informatzaileek irizpide desberdinak hartu dituztela, beren programetan laguntza jasotzen duten etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeei buruzko datuak kontabilizatzean.

Tokiko erakundeetan datu-bilketa errazteko eta informazio-bilketako sistemak hobetzen laguntzeko estrategiei buruz eztabaidatu da, eta gogorarazi da BGIBren 2009-2012 epealdirako Lan Planean jasota dagoela Udal Harremanetarako Sarea sendotzea. Horretarako, erakunde informatzaileetara bisita pertsonalizatuak egingo dira, datuak zer-

nola erregistratzen eta tratatzen diren jakiteko; horrez gain, BGIBri informazioa helarazten dioten pertsonak harremanetan jartzeko guneak sortuko dira, erregistroei buruzko gaiak lantzeko testuinguru egokiak izango baitira.

Informazio-bilketari eta prozesua hobetzeari dagokienez, BGIBren 2009-2012 epealdirako Lan Planean ezarritakoari jarraiki egindako lana azaldu da. Halaber, aurreko urteetan erabilitako txosten-ereduan aldaketak egin dira “Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan. 2008” dokumentua egiteko:

- Dokumentuak lantzen dituen arloei buruzko zifren analisi kualitatiboa egin da; hau da, gizarte-babesaren, poliziaren eta justiziaren arloei buruzko zifrena (adibide bat azaldu dute bileran)
- Informazioa aurkezteko formatua aldatu da; hori dela eta, tauletako datuetara iristea errazagoa izango da eta kalkulu-orrien fitxategiak deskargatu ahal izango dira.

#### ■ 2009ko irailaren 28ko bilera

“Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan. 2008” dokumentua aurkeztu eta onartu da; dena dela, astebete dago alegazioak aurkezteko, eta haietatik erator litezkeen aldaketak sartu gabe daude.

Jakinarazi da, 2009ko apirilean egindako hauteskunde autonomikoen ondorioz Eusko Jaurlaritzako karguetan aldaketak izan direnez, oraindik erabaki gabe dagoela nork ordezkatzeko dituzten Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Herri Administrazio Saila eta Lan eta Gizarte Gaietako Saila Behatokiaren osoko bilkuran eta Adierazleen Lan Taldean.

#### **Eranskinak kontsultatzeko:**

[http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero\\_Indarkeria/ca\\_index.html](http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/ca_index.html)

[2009ko otsailaren 25eko bilera](#)

[2009ko ekainaren 1eko bilera](#)

[2009ko uztailaren 8ko bilera](#)

2009ko irailaren 28ko bilera

### **c. Kanpo-harremanak**

Jarduera-arlo honetan, Behatokiari egiten zaizkion informazio-eskaerei erantzuten zaie. Eskaera horiek Administrazioak egin ditzake, bai eta emakumeen aurkako indarkeriari buruz datuak behar dituen zeinahi erakunde eta pertsonak ere, nazioarteko esparrukoa nahiz tokikoa izan. Eskaera horien kudeaketa telefonoz eta posta elektronikoz egiten da, eta azken kasu horretan, organoaren buzoia baliatuz: [ovgb.bgib@bizkaia.net](mailto:ovgb.bgib@bizkaia.net)

2009ko ekitaldian, alderdi hauei buruzko kontsultei erantzun die Behatokiak: arazo honen biktimei laguntzeko dauden zerbitzuak, zerbitzu horien espezifikotasunak, datu estatistikoak, eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko txostenei, azterketei, ikerketei eta argitalpenei buruzko dokumentazioa, besteak beste.

2009an, halaber, Behatokiak laguntza eman dio Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Etxeko eta Genero Indarkeriaren aurkako Behatokiari, “emakumeen aurkako indarkeriaren arloan trataera estatistikoa hobetzeari” buruzko esperientzia-truke batean parte hartzeko gonbita onartu baitu BGIBk. Ekimen hori EUROsoiAL (justizia-arloa) egitasmoaren Latinoamerikan Gizarte Kohesioa bultzatzeko Eskualde Programaren baitan dago (EUROsociAL Europako Batzordeak Latinoamerikan gizarte-kohesioa sustatzeko abiarazitako lankidetza teknikoko ekimena da).

Truke-programa horretan, esku-hartze mekanismo nagusia honi buruzko esperientziak trukatzea da: “gizarte-kohesioan eragina duten politiken eta programen diseinuari, aplikazioari eta kudeaketari buruz ikasitako lezioak eta jardunbide onak administrazio publikoek elkarri helarazteko prozesuak”. Testuinguru horretan, jarduera horien helburua izan zen genero-indarkeriaren arloan datu estatistikoak erabiltzen eta ustiatzen Europan izandako esperientziak jakinaraztea. Hala, Europako hiru estatuk eman zuten beren esperientzien berri: Espainiak, Frantziak eta Erresuma Batuak. Trukean esperientzien berri jaso zutenak, berriz, Costa Rica, Honduras eta Nikaragua izan ziren eta, zehazki, erakunde hauek: Costa Ricako INAMU (Emakumeen Institutu Nazionala) eta Justiziako Gorte Gorena; Hondurasko INE eta Justiziako Gorte Gorena; Nikaraguako Polizia Nazionala eta Justiziako Gorte Gorena.

BGIBk trukearen pasantia-fasean hartu zuen parte. Lan handiko astea horretan, delegazioko kideek Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Justiziako Ministerioa, Barne Ministerioa, Berdintasunekoa, INE eta BGIB bera bisitatu zuten. Horrela, martxoaren 27an, lan-bilera bat egin zuten Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailaren lokaletan; han bildu ziren deitutako herrialde eta erakunde latinoamerikarretako ordezkariak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Etxeko eta Genero Indarkeriaren aurkako Behatokikoak eta Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokikoak.

Bileraren aztergai nagusia BGIBk egindako lana izan zen; hau da, proiektuaren exekuzioa, martxan jarritako mekanismoak eta garatutako produktuak. Hausnarketa orokorrerako gunea izan zen, organoak lanean daramatzan lau urteetan ikasitako lezioei buruz gogoeta egiteko. Era berean, gonbidatutako herrialdeek gaiari buruz izandako esperientziak azaldu zituzten.

Erdialdeko Amerikako delegazioak pasantiari buruz egindako balorazioan, BGIB izan zen iritzi onena jaso zuen erakundea, [Buletina-BGIB 13. zk.an](#) argitaratutako elkarrizketan irakur daitekeenez. Elkarrizketa Botere Judizialaren Kontseilu Nagusian Etxeko eta Genero Indarkeriaren aurkako Behatokiko atalburu denari eta EUROsociAL Justicia ekimenean genero-indarkeriaren arloko koordinatzaile aditua denari egin zitzaion. Haiek nabarmendu zutenez, *“Bizkaiko Behatokira egindako bisitaldiak lagundu zien hobekien ikusten zer den erakunde-izaera duen Behatoki bat, zer emaitza lor daitezkeen eta egindako lanak politika publikoak diseinatzen nola lagun dezakeen.”* Hainbat arrazoi eman zituzten, haien artean hau: *“aipagarria deritzot datua emate hutsaren ordezkari horietatik zein irakaspen atera daitezkeen azaltzeko beharrari. Izan ere, horrek adierazten du aintzat hartzen dutela zein garrantzitsua den fenomeno osotasunean ulertzea: justiziaren eta baliabideen eskuragarritasuna, batetik, eta tokiko eta autonomiko administrazioen erantzuna, bestetik. Horri erantsi behar zaio azterketa diziplina-arteko batzorde batek egin izanaren balioa; kontuan izanda batzorde horretan erakundearen ordezkariak gainera gizarte zibilak ere baduela ordezkartza, elkarte, GKE eta arlo honetan adituak diren beste pertsona batzuen bidez.”*

#### d. Webgunea

Behatokiak webgune bat kudeatzen du 2004. urteaz geroztik, eta bertara Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Sailaren webguneko esteka honetatik iristen da:

[http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero\\_Indarkeria/ca\\_index.html](http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/ca_index.html)

[http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero\\_Indarkeria/eu\\_index.html](http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/eu_index.html)

Helburu orokor hauek betetzeko sortu zen webgunea: organoa bera hedatzea; emakumeen aurkako indarkeriaren ikerketa-lana eta erradikazioari buruzko informazioa trukatzea; lan-tresnak diseinatzea, eguneratzea eta hedatzea; Behatokiaren eta erakundeen arteko harremanak eta ideien eta dokumentuen trukea erraztea.

Aurreko urteetan egindakoarekin bat etorriz, 2009an gune hau informazioaren hedapenerako eta komunikaziorako plataforma izatea sustatu da. Horretarako, mantentze-lan egokia egin da, informazioa etengabe eguneratuz eta beharrezko egitura-aldaketak eginez, eduki berriak jakinarazteko eta haietara iristea errazagoa izan dadin.

Behatokiaren webgunea 16 sarreratan dago egituratuta (horietatik zortzik testuak jasotzen dituzte)

- **Definizioa:** Behatokiaren aurkezpena; aurrekariak; helburuak eta zereginak.
- **Kideak:** Behatokiaren osoko bilkura osatzen duten pertsonen zerrenda; bakoitzak zer kargu duen eta zer erakunderen ordezkari den zehazten da.
- **Bilerak:** osoko bilkuren egutegia eta haietan onartutako dokumentuak.
- **Dokumentuak:** protokoloak, legeria, nazioarteko baliabideak, azterketak eta gidak, eta Behatokiak sortutako dokumentuak jasotzen dira bertan:
  - BGIBren Lan Plana (2009-2012)
  - BGIBren Lan Plana (2004-2008)
  - BGIBren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko araudia
  - Jarduera-memoriak (2004, 2005, 2006, 2007 eta 2008)

- “Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan. Gizarte babesaren, Poliziaren eta Justiziaren arloak (2004, 2005, 2006, 2007, 2008)” dokumentua
- “Laguntza juridikoa, laguntza psikologikoa, familietan esku-hartze espezializatua eta babesa ematea etxean indarkeria jasaten duten emakumeentzat. Foru Aldundiaren, udalerrien eta mankomunitateen baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan (aurtengo urtea: 2009)” txostena
- *Emakumeen aurkako etxe barruko Indarkeria. Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako ikerketa baten emaitzak* argitalpena
- *Genero-indarkerien aurkako praktiken, ekimenen eta esperientzien esku-liburua (2006)* argitalpena
- “Europar Batasunaren emakumeen kontrako indarkeriaren gaineko zifrak, 2006” dokumentua
- “Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren ebaluazioa, 2004-2008ko epealdia” azterketa
- “Bizkaiko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundeen jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak” (Argitalpenaren Sintesia/Testu Osoa) dokumentua
- **Baliabideen mapa:** Bizkaian genero-indarkeriaren arloan jarduten diren erakundeen (arlo instituzionalekoak zein elkarteak) eta baliabideen datu-basea. Berdintasun-planetara, indarkeriaren aurkako programetara eta ekintza koordinatuko protokoloetara ere irits daiteke bertatik; izan ere, ekimen horien erakunde titularrek –udalerriek eta mankomunitateek– BGIBri helarazten dizkiote, heda ditzan.
- Mapak “baliabideen bilatzaile” izeneko aplikazioa dauka. Horri esker, zerbitzuen zerrendak lor daitezke: gizarte-arloko baliabideak, justizia-arloko baliabideak, elkarteak eta beste batzuk, indarkeriaren kontrako zerbitzu espezializatuak, polizia-arloko baliabideak, osasun-arloko baliabideak eta berdintasunerako tresnak; hiru bilaketa-aukera ditu:
  - Udalerrri guztien baliabideak guztira
  - Aukeratutako udalerrriaren baliabideak guztira
  - Udalerrri guztien aukeratutako arloen baliabideak guztira

- **Adierazleak:** bi atal ditu; Adierazleen Lan Taldea eta zifrak.
  - **Lan-taldeari** buruzko atalean, Adierazleen Lan Taldeko kideen zerrenda dator, bakoitzak zer kargu duen eta zer erakunde ordezkatzeko duen adierazita; horrez gain, bileren egutegia eta haietan sortutako dokumentuak ere badakartza.
  - **Zifrei** buruzko atalean, “Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan” dokumentuaren 2004eko, 2005eko, 2006ko, 2007ko eta 2008ko edizioak datoz. 2009an, atal hau aldatu egin da, eduki berrietara eta 2008ko edizioaren formatura egokitzeko.
- **Baliabideen atlas:** bilduma kartografiko honetan, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriek etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeei eskaintzen dizkieten laguntza juridikoko, laguntza psikologikoko eta harrerako baliabideek zer eremu hartzen duten azaltzen da; horiez gain, berdintasun-politika aktiboen berri ere ematen da (planak, arloak, sareak eta eragileak).
- **Dokumentu-kudeatzailea:** udalerrien berdintasun-planak, udal-programak, udal-protokoloak eta aplikatzekoa den legedia Bizkaiko Lurralde Historikoan, beste autonomia-erkidego batzuetan eta Espainian.
- **Loturak:** gune honetan, Behatokian parte hartzen duten erakundearen webguneen estekak datoz, bai eta beste erakunde batzuenak, antzeko behatokiak, eta erakunde, programa eta proiektuenak ere.
- **Parte hartu OVBG-BGIBren ebaluazioan:** Behatokiaren eta haren webgunearen funtzionamenduari buruzko *online* inkesta, webgunea kontsultatzen dutenek betetzeko.
- **Buletina:** hiru hilean behingo argitalpen elektronikoa; bertara webguneko orrialdeetatik iristen da, nahiz izanez gero azken argitalpena edo argitaratutako zenbaki guztiak biltzen dituen historialera.
- **Hizkuntza:** euskarazko edo gaztelaniazko bertsioa aukeratu daiteke webgunean nabigatzeko.
- **Harremana:** erakundearekin harremanetan jartzeko datuak jasotzen dira, hala nola kokagunea, helbide elektronikoa, telefonoa eta faxa.
- **Buzoia:** Behatokiaren helbide elektronikoa da, [ovgb.bgib@bizkaia.net](mailto:ovgb.bgib@bizkaia.net)

- **Irisgarritasuna.**
- **Web mapa**

Behatokiaren lehentasuna da aniztasun funtzionala duten pertsonentzat edota, informazioa eskuratzeko orduan, oztopo teknologikoak dituztenentzat tresna praktikoa eta erabilgarria izatea, *online* dagoen informazioa lortzerakoan eta kudeatzerakoan berdintasuna sustatuko eta bermatuko duena, gaur egungo baldintza teknologikoak kontuan hartuta. Irisgarritasun hori bermatzeko, orrialde guztiek WAIk (Web Accessibility Initiative) emandako gomendioak betetzen dituztela egiaztatuta da.

## **e. Udal Harremanetarako Sarea (UHS)**

Behatokia lanean hasi zenetik, udalerri eta mankomunitateekin harremanak izatea jardueraren oinarrietako bat izan da. Izan ere, erakunde horiek Bizkaiko emakumeen aurkako indarkeriaren berri izateko ezinbestekoa den informazioa helarazten dute.

Hori gauzatu dadin, Bizkaiko Lurralde Historikoko 112 udalerrietako eta 9 mankomunitateetako Berdintasunetako eta Gizarte Zerbitzuetako arloetan jarduten diren profesionalekin ditugu hartu-emanak. Horrela, Behatokiak UHSren bidez egiten du Bizkaiko udalek eta mankomunitateek emandako urteko datuen bilketa eta analisia.

2007. urteaz geroztik, Euskal Udalen Elkartea-EUDELeK (BGIBko kide da eta Adierazleen Lan Taldeko partaide) jakinarazpen bat sinatzen du Behatokiarekin batera; haren bidez, informazioa biltzeko prozesuari hasiera ematen zaio, Behatokiari laguntza ematera sustatzen da, eta erakunde informatzaile bakoitzari helburu horretarako ordezkari bat izendatzeko eskatzen zaio.

Udalerriek eta mankomunitateek emandako informazioari esker, egoera horiei laguntza emateko Bizkaiko baliabideen mapa egin daiteke. Horrez gain, jakin daiteke tokiko erakundeek indarkeriaren arazoa jasaten duten zenbat emakumeri eman dieten laguntza; hala, informazio hori Behatokiak egiten dituen produktuetan jasotzen da.

Aurreko ekitaldietan bezala, 2009an ere, erakunde horiek hasieran emandako datuak tratatu ondoren, berriz ere laguntza eskatzen zaie. Horrenbestez, haiek hasieran bidalitako datuetan oinarrituta sortutako informazioa bidaltzen zaie, informazio hori egiazta dezaten, argitaratutakoa zehatza izatea baita helburua.

Bi fase horiek –informazio-bilketa eta emakumearen aurkako indarkeriako egoerei tokiko botereek emandako erantzunaren jarraipena– agerian uzten dute Behatokiaren eta sarearen arteko hartu-emanaren hedadura.

Erakundeei tratatutako informazioa atzera itzuliz, Behatokiak erakunde informatzaileei aurreratu egiten die haiek bidalitako informazioan oinarrituta zer material argitaratuko duen. Tokiko erakundeekin hartu-emanak izateko, ohiko bideak erabiltzen dira oro har: posta elektronikoa (buzoia [ovgb.bgib@bizkaia.net](mailto:ovgb.bgib@bizkaia.net) ), posta idatzia eta telefonoa; dokumentuen, informazioaren eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko lan-tresnen berri emateko, Behatokiaren webgunea erabiltzen da edo, zehazki, Buletina-BGIB, sarea dinamizatzeko eta informatzeko diseinatu zena.

Horrez gain, udalek eta mankomunitateek informazio eske jotzen dute maiz Behatokira, Bizkaian edota EAE osoan martxan diren baliabide eta ekimen publikoei buruzko datuak jasotzeko. Bada, komunikazio-continuumak ixten da horrela.

2009-2012 Lan Plan berrian, Behatokiaren asmoa sarea sendotzea da, eta tokiko erakundeekiko harremana indartzeko neurriak aurreikusten ditu; horretarako, elkarrengana hurbiltzeko zenbait gune abiaraztea jasotzen du.

## **f. Informazioa kudeatzeko sistema integrala**

Behatokiak, 2009ko datu-bilketako prozesua egiteko, informazioa kudeatzeko sistema integrala erabili du. Sistema hori 2007ko ekitaldian abiarazi zen, indarkeriaren biktima diren emakumeei emandako laguntzei buruzko datuak eta emakumeei laguntza emateko baliabideen ezaugarriak biltzea, erregistratzea eta ustiatzea azkarragoa izan dadin Lurraldeko udalerrientzat eta mankomunitateentzat.

Tokiko erakundeek emandako informazioa biltzen duen datu-basea da, eta *ad hoc* sistema batean oinarritzen da. Erakundeek informazioa helarazteko, galdetegi digital pertsonalizatu bat betetzen dute, aurreko urteetako datuak ere gordetzen dituen eta, horrenbestez, informazio berria edo zerbitzariak gordeta duen informazioarekin alderatuta desberdina dena baino ez dute sartu behar. BackOffice tresnaren bidez, fitxetan jasotako datuen zerrendak eta estatistikak atera daitezke.

Galdetegiak sei atal nagusi ditu, gaika antolatuta, eta erakundeek zer baliabide eskaintzen dituzten eta beren jardunean zenbat laguntza eman dituzten erantzun behar dute.

- Tokiko erakundea
- Gizarte-babeserako eta berdintasunerako baliabideak: oinarrizko gizarte-zerbitzuak, Emakumearen edota Berdintasunaren Arloa, Berdintasun Plana, Emakumeenganako indarkeriaren kontrako plana, berdintasuneko teknikaria, Berdintasun Kontseilua, ekintza koordinaturako protokoloa, BERDINSAREA.
- Aholkularitza juridikoko baliabideak.
- Aholkularitza psikologikoko baliabideak.
- Indarkeriaren biktima diren emakumeei babesa emateko baliabideak.
- Beste baliabide batzuk: familia batzeko gunea, telefono bidezko arreta-zerbitzua, etab.

Galdetegia betetzean sor daitezkeen zalantzei erantzuteko, bestalde, erakunde informatzaileek telefono bidezko arreta-zerbitzua edo posta elektronikoa erabil dezakete.

Sistema honek informazioaren kudeaketa, prozesuaren jarraipena, datuen ustiapena eta erakunde informatzaileekiko elkarrekintza errazten du, eta horrenbestez, euskarri homogeneo batean datu egiaztagarriak biltzeko kultura sustatzen da.

Sistemaren mantentze-lanei dagokienez, Behatokiak etengabeko hobekuntzaren ikuspuntua hartu du: hobekuntza-elementuak identifikatzen ditu, erakunde erabiltzaileek egiten dituzten eskaeretan eta barne-hausnarketan oinarrituta. Hori horrela, 2009an zenbait aldaketa egin ziren, informazio gehiago eta hobe lortzeko eta galdetegia erabiltzea errazagoa izateko:

- Baliabideen ezaugarriei buruzko galdera berriak sartu dira, eta laguntza jaso duten emakumeei buruzko datu zehatzagoak eskatu dira, hala nola biktimak erasotzailearekiko duen harremana, nazionalitatea eta adina.
- Galdetegian bertan, proposamen terminologikoan datozen definizioei buruzko kontsultak egiteko aukera abiarazi da. Proposamen terminologikoa emakumeen aurkako indarkeriari buruzkoa da, eta erakundeen arteko Akordioaren Jarraipen Batzordeak adostu zuen, zalantza kontzeptualak argitze aldera, zalantza horiek kasuen zenbaketan okerrak sor baititzakete.
- Tresna egokitu da, osorik euskaraz erabili ahal izateko.
- Diseinu erakargarriagoa du.

## g. Baliabideen mapa

Genero-indarkeriaren arloko baliabideen mapa datu-base bat da, eta Behatokiaren webgunetik du sarbidea. Indarkeria-egoerak jasaten dituzten emakumeei beharrezko laguntza emateko Lurraldean dauden baliabideei buruzko informazioa jasotzen du.

Azken urteotan, 2005. urteaz geroztik martxan dagoen tresna honen mantentze- eta eguneratze-lanak egin dira ohikotasunez, arreta-sarean berregituraketak eta zerbitzu berriak egon direla jakin ahala.

Mapak zortzi atal ditu; udalerri bakoitzari buruzko datu zehatzak azaltzen dira, udalerriz udalerri antolatuta: indarkeriaren aurkako zerbitzu espezifikoak, gizarte-, polizia-, justizia- eta osasun-zerbitzuak, elkarteak eta berdintasun-tresnak (berdintasun-planak, indarkeriaren aurkako planak eta programak, eta indarkeriaren aurkako ekintza koordinaturako protokoloak).

Zer baliabide dauden jakinarazten da, eta haien deskripzioa egiten; horrez gain, gaiarekin lotutako dokumentazioa ere eskuratu daiteke. Bi informazio-maila daude:

- A. **Udaletako fitxak:** mapa grafikoan edo zerrendan udalerria aukeratu ondoren, aukeratutako herrian dauden baliabideei buruzko informazio-fitxa bat agertzen da.
- B. **Baliabideen zerrenda:** mapak baliabideen bilatzaile bat dauka; bilatzaileak zerrendak lortzen ditu, hiru bilaketa-aukera hauen bidez:
  - udalerri guztietako baliabideak guztiak;
  - aukeratutako udalerrian, aukeratutako arloen baliabideak;
  - udalerri guztietan, aukeratutako arloen baliabideak.

Mapak badu aplikazio bat kontsultan lortutako datuen zerrenda Excel formatura pasatzeko.

Bertako informazioa hauentzat da:

- Laguntza ematen jarduten diren profesionalak eta erakundeak: udalerri eta mankomunitate bakoitzean eskura dauden baliabideei buruzko informazio integrala ematen da, beren zerbitzuak hobetzeko balio dezan; genero-indarkeriaren arloan indarrean dagoen araudiari buruzko dokumentazioa (planak, programak edo udalerriek eta mankomunitateek ezarritako protokoloak) ere kontsulta daiteke.
- Kaltetutako pertsonak: laguntza emateko zer baliabide dauden zehazten da, eta horiekin harremanetan jartzeko datuak ematen dira.
- Politika publikoetako arduradunak: intereseko datuak eta informazioa lor daitezke bertan, egungo egoera baloratu eta jarduera-neurri berriak hartzeko.
- Herritarrak/komunitatea: indarkeria-egoeretan esku hartzen duten erakundeak eta baliabideak zehazten dira.

Hasieratik, Baliabideen mapak aitorpena lortu du lan-tresna gisa, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko eta EAEko erakundeek erabili ohi dute, besteak beste Eusko Jaurlaritzaren Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako telefono bidezko arreta-zerbitzuak.

### **Eranskinak kontsultatzeko:**

[http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero\\_Indarkeria/ca\\_index.html](http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/ca_index.html)

[Genero-indarkeriaren arloko baliabideen mapa](#)

## **h. Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Baliabideen Bizkaiko Lurralde Historikoaren atlasa**

Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Baliabideen Bizkaiko Lurralde Historikoaren atlasean, mapen bilduma bat jaso da, grafikoki adierazteko gizarte-arloan genero-indarkeriako egoerei laguntza emateko dauden zerbitzuen sareari buruzko informazioa: planak, programak, protokoloak.

Behatokiaren webgunetik sartzten da bertara, eta informazioa bost ataletan antolatuta aurkezten da:

### **Planak eta programak**

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak eta Programak Bizkaiko udalerri eta mankomunitateetan, 1., 2. edo 3. edizioa den edota egiteko dagoen kontuan hartuta
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak eta Programak Bizkaiko udalerri eta mankomunitateetan, zer urtetan onartu diren kontuan hartuta
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak eta Programak Bizkaiko udalerri eta mankomunitateetan, pertsonal tekniko espezializatua baduten kontuan hartuta

### **Koordinazioa**

- Berdintasunaren aldeko eta Indarkeriaren aurkako Euskal Udalerrien Sarea, BERDINSAREA
- Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako laguntza hobetzeko protokoloak dituzten udalerriak eta eskualdeak

### **Harrera**

- Bizkaiko Lurralde Historikoan indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-baliabideak, plaza-kopurua kontuan hartuta
- Bizkaiko Lurralde Historikoan indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-baliabideak, zer urtetan sortu ziren kontuan hartuta

## **Laguntza psikologikoa**

- Laguntza Psikologikorako Zerbitzuak Bizkaiko Lurralde Historikoan, zenbat arreta-ordu eman diren kontuan hartuta
- Laguntza Psikologikorako Zerbitzuak Bizkaiko Lurralde Historikoan, jarduera zer urtetan hasi zen kontuan hartuta

## **Aholkularitza juridikoa**

- Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuak Bizkaiko Lurralde Historikoan, zenbat arreta-ordu eman diren kontuan hartuta
- Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuak Bizkaiko Lurralde Historikoan, jarduera zer urtetan hasi zen kontuan hartuta

## **Eranskinak kontsultatzeko:**

[http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero\\_Indarkeria/ca\\_index.html](http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/ca_index.html)

[Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko baliabideen atlasa](#)

## **i. Bizkaiko Lurralde Historikoko zifrak**

2009an, Behatokiaren 2009-2012 epealdirako Lan Plana egiten hasi gara. Horretarako, aldaketa sakona egin da erakunde-programetan indarkeriaren arazoa jasaten duten zenbat emakume artatu diren jasotzen duen urteko txostenean. Txosten hori, aurreko urteetan bezalaxe, Adierazleen Lan Taldeak egin du, "Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan. Gizarte Babesaren, Poliziaren eta Justiziaren arloak" izenburupean.

Dokumentua webgunean dago eskuragarri, eta aurreko ekitaldietan bezalaxe, hiru jarduera-arloetako informazioa jasotzen du, 127 iturrik helarazia: 112 udalerri, 9 mankomunitate; Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Saila; Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila<sup>1</sup>; Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila; Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Saila<sup>2</sup>; Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ); Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea; eta Etxeko Indarkeriaren eta/edo Eraso Sexualen Biktimentzako Aholkularitza Juridikoko Zerbitzua eta Ofiziozko Txanda.

Aurtengo edizioko berrikuntza nagusia hiru arloetako datuen analisi deskribatzailea egin izana da. Etorkizunean Behatokian egingo diren zenbait lanen hasiera izan da, eta lan horien oinarri. Bizkaiko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko ezagutza-maila areagotu eta egoera horien bilakaera baloratu ahal izango da horrela. Analisi deskribatzaileari esker, BGIBk urtero egiten dituen txostenak osatu egiten dira, eta balioa eranstean zaie. Hain zuzen, txosten horietan gizarte-, polizia- eta justizia-erakundeek artatutako emakumeei buruzko datu estatistikoak jasotzen dira, hiru arloetakoak batera. Hala bada, datuek ematen duten informazioa baliatzen da hauek lortzeko:

- Datuak kontestualizatzea erakundeek emakumeen aurkako indarkeriako egoerei erantzuteko hartutako neurrien esparruan.
- 2008an emakumeen aurkako indarkeriako egoerei emandako laguntzaren alderdi nagusiak azaltzea, bai eta egoera horiek azken bosturtekoan izandako bilakaera ere.

---

<sup>1</sup> Gaur egun Lan eta Gizarte Gaietako Saila.

<sup>2</sup> Gaur egun Justizia eta Herri Administrazio Saila.

Analisi deskribatzailea egitea berrikuntza izan da, eta horrek berarekin ekarri du dokumentuaren edukia hobetzea. Horrez gain, webgunean dokumentua aurkezteko orain arte erabili den formatua aldatu, eta formatu berria aztertzeari, diseinatzeari eta gauzatzeari ekin zaio; aldaketa horrek helburu hauek ditu:

- Informazioaren hedapena hobetzea, erabiltzaileen behar eta interesetara egokitzeko
- Datuetarako sarbidea optimizatzea, zenbait informatika-tresna gehitu baitira.

Txostena bi bertsiotan aurkezten da:

■ Dokumentu osoa, atal hauek dituen:

- Analisi-dokumentua(k)
- Terminoen glosarioa
- Datuen iturriak
- Datu-taulen eranskina
- Dokumentu-eranskina (emakumeen aurkako indarkeriari buruzko proposamen terminologikoa, erakundeen arteko Akordioaren Jarraipen Batzordeak adostua)

■ Analisi-dokumentuak eta datu-taulak jasotzen dituzten liburuak (xls), gaika antolatuta:

- Analisi deskribatzailea jasotzen duten hiru dokumentu (gizarte-, polizia- eta justizia-arloak)
- Datu-taulak (xls) jasotzen dituzten 9 liburu

Hiru jarduera-arloei buruzko eduki tematikoa aurreko urteetako bera da:

■ **GIZARTE-BABESAREN ARLOA:**

Bai analisiak bai datu-taulek alderdi hauei buruzko informazioa jasotzen dute: harrera (larrialdiko zerbitzua, epe ertaineko edo luzeko harrera-zentroak eta -pisuak), aholkularitza juridikoa, laguntza psikologikoa, familia-arreta espezializatuta, familien bilguneak, etxebizitza izaten laguntzeko neurriak eta telefono bidezko arreta.

Informazio-iturriak: Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Sailaren Emakumearen eta Familiaren Zerbitzua; Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrri eta mankomunitateak, harrerarako, aholkularitza juridikorako eta laguntza psikologikorako zerbitzuak dituztenak;

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren<sup>3</sup> Etxebizitza Sailburuordetza; Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako Sailburuordetza.

## ■ POLIZIA-ARLOA:

Bai analisiak bai datu-taulek alderdi honi buruzko informazioa jasotzen dute: Bizkaiko Lurralde Historikoan etxeko indarkeriak biktime bihurtutako zenbat emakume erregistratu dituen Ertzaintzak. Egoeraren adierazle nagusiei buruzko mapak ere jasotzen dira.

Informazio-iturriak: Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren Segurtasuneko Sailburuordetza.

## ■ JUSTIZIA-ARLOA:

Bai analisiak bai datu-taulek alderdi hauei buruzko informazioa jasotzen dute: etxeko indarkeriagatik hasitako prozesu judizialak, biktimei emandako laguntza, abokatu-laguntza eta epaitegiko medikuaren arreta.

Informazio-iturriak: Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren<sup>4</sup> Justizia Sailburuordetza; Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ); Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea; Etxeko Indarkeriaren eta/edo Eraso Sexualen Biktimentzako Aholkularitza Juridikoko Zerbitzua eta Ofiziozko Txanda.

## Eranskinak kontsultatzeko:

[http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero\\_Indarkeria/ca\\_index.html](http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/ca_index.html)

[Genero-indarkeriako egeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan. Gizarte Babesaren, Poliziaren eta Justiziaren arloak \(2008\)](#)

---

<sup>3</sup> Gaur egun Lan eta Gizarte Gaietako Saila.

<sup>4</sup> Gaur egun Justizia eta Herri Administrazio Saila.

**j. Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntza-baliabideen eta programa espezifikoaren katalogoa: Foru Aldundiaren, udalerrien eta mankomunitateen baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan**

Behatokiak urtero argitaratzen du “Laguntza juridikoa, laguntza psikologikoa, familietan esku-hartze espezializatua eta babesa ematea etxean indarkeria jasaten duten emakumeentzat. Foru Aldundiaren, udalerrien eta mankomunitateen baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan” dokumentua, eta bertan, Bizkaiko erakundeek indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko egiten duten eskaintzari buruzko informazio eguneratua jasotzen da.

Katalogoak lau atal ditu:

- Aholkularitza juridikoko baliabideak
- Laguntza psikologikoko baliabideak
- Familian esku-hartze espezializatua egiteko baliabideak
- Babesa emateko baliabideak

Atal bakoitzaren hasieran mapa bat dago, arloari dagozkion baliabideek lurraldean zer estaldura duten azaltzen duena.

Atal bakoitza, halaber, bi azpiataletan dago antolatuta, baliabidearen titularra zein den kontuan hartuta: Bizkaiko Foru Aldundia, batetik; eta, bestetik, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerri eta mankomunitateak.

Dokumentuaren edukia, denborakin, aberastuz joan da. 2009ko edizioan, lehenengo hiru kapituluek (aholkularitza juridikoari buruzkoak, laguntza psikologikoari buruzkoak eta familietako esku-hartze espezializatuari buruzkoak) honako informazio hau dakarte:

- Baliabidearen titularra zer erakunde den (harremanetarako datuak)
- Baliabidearen helburu orokorrak eta garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena
- Zer kolektibori zuzentzen zaion
- Kudeaketa-mota
- Arreta-egunak eta -ordutegia

- Arreta-orduak hileko
- Zerbitzua ematen duten pertsonen kopurua
- Beste zenbait datu interesgarri (esaterako: zerbitzua noiz abiarazi zen)
- Erabiltzaile-kopurua 2008an, sexuaren arabera sailkatuta
- Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileen kopurua 2008an, tratu txarrak edo sexu-indarkeria jasan duten kontuan hartuta

Era berean, babesa emateko baliabideei buruzko informazio-fitxak hau jasotzen du:

- Zenbat baliabide dauden
  - Pisu-kopurua
  - Plaza-kopurua
- Pisu-mota
  - Aldi baterako harrera
  - Larrialdiko harrera
- Zerbitzuaren kudeaketa-mota
- Jagote-/Lagun-egite programa
- Pisuari txikitako langileak
- Beste zenbait datu interesgarri (esaterako: zerbitzua noiz abiarazi zen)
- 2008an hartutako pertsonen kopurua, informazioa hauen arabera banatuta:
  - Emakumeak
  - Emakume horien ardurapeko adingabeak
  - Emakume horien ardurapeko pertsona helduak

Dokumentuaren amaieran eranskin hau dator: “Emakumeen aurkako indarkeria. Proposamen terminologikoak”, Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko Akordioaren Jarraipen Batzordeak eginga.

#### **Eranskinak kontsultatzeko:**

[http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero\\_Indarkeria/ca\\_index.html](http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/ca_index.html)

[“ Laguntza juridikoa, laguntza psikologikoa, familietan esku-hartze espezializatua eta babesa ematea etxean indarkeria jasaten duten emakumeentzat. Foru Aldundiaren, udalerrien eta mankomunitateen baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan \(2009\)”](#)

## **k.        *Online dokumentu-kudeatzailea:***

Online dokumentu-kudeatzailea datu-base bibliografikoa da, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko dokumentu interesgarriak katalogatzen dituen, lau tipologia tematikotan sailkatuta:

- Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerri eta mankomunitateen berdintasun-planak
- Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerri eta mankomunitateen emakumeenganako indarkeriaren aurkako programak
- Etxeko tratatu txarren biktima diren emakumeentzako laguntza hobetzeko ekintza koordinatuko protokoloak tokiko erakundeetan
- Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko legedia:
  - Legeak
  - Dekretuak
  - Aginduak

Dokumentuen deskribapena egiterakoan, ISBD (International Standard Bibliographic Description) arauen egokitzapen bat egin da, dokumentu bakoitzaren ezaugarri formalen eta kanpo-ezaugarrien analisisa egiteko. Izan ere, arau horiek ematen dituzte jarraibideak dokumentuen deskripzioan ezarritako arloak xehatuta ikusteko; eta arlo horiek sarbide-elementuak izango dira, zeinetatik ateratzen baita dokumentu-fondoan dauden erregistroak katalogatzeko eta antolatze beharrezkoa den informazio objektiboa.

Informazio-unitateak arlo edo esparru hauetan mailakatzen dira:

- Egilea
- Izenburua
- Dokumentu-mota
- Beste erantzukizun-aipamen batzuk
- Edizio-aipamena
- Hizkuntza
- Edizio-lekua
- Argitaletxea
- Edizio-urtea
- Maiztasuna (aldizkako argitalpenak badira)

- Seriea

- Oharrak
- Zenbaki normalizatuak edo sinboloak:
  - ISBN
  - ISSN (aldizkako argitalpenak badira)
  - NIPO
  - LG
  - Sinboloa
- Laburpena
- Deskriptoreak

Behin erregistroak *online* dokumentu-kudeatzailean sartutakoan, aplikazio informatikoak bi bilaketa-modu ditu:

### **Bilaketa arrunta**

Testu-kaxan hitz bat edo gehiago idatzita, bilatu nahi ditugun dokumentuak agertuko zaizkigu.

### **Bilaketa aurreratua**

Testu-kaxak betez, bilaketa zehatzagoa izango da eta eskatutako dokumentua lortzeko aukera gehiago izango ditugu.

Sistemak dokumentua aurkitu, eta fitxa katalogafiko modura aurkezten du. Bertan, bilaketari dagokion dokumentu digitala dago atxikita, baldin eta datu-basean fitxategia badago. Gero, aplikazio egokiak erabiliz bistaratu ahal izango da.

### **Eranskinak kontsultatzeko:**

[http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero\\_Indarkeria/ca\\_index.html](http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/ca_index.html)

### [Dokumentu-kudeatzailea](#)

## **I. BGIB informazio-buletina**

2009an, Behatokiaren buletin elektronikoaren lau zenbaki argitaratu dira: 12. zk. martxoan, 13. zk. ekainean, 14. zk. irailean eta 15. zk. abenduan.

Buletina, Behatokiaren aldizkako komunikazio-tresna, 2005ean abiarazi zen –probako zenbaki bat argitaratu eta gero, abenduaren 21eko osoko bilkuran berretsi zen–. Emakumeen aurkako indarkeriako egoerei aurre egiteko martxan jarritako mekanismo eta prozeduren gainean sentsibilizatzeko, haien berri emateko eta haiek sustatzeko tresna da, eta helburu hauek ditu:

- Behatokiak Lurraldeko informazioa biltzeko eta aztertzeko organo gisa duen rola sendotzea.
- Udalerrri eta mankomunitateekiko harremana finkatzea, bai eta erreferentziazko beste erakunde batzuekikoa ere.
- Hainbat arlotako profesionalekin eta erakundeekin emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ezagutzak trukatzeko gunea izatea: egindako jarduerak, ikasitako lezioak, ikuspegi berriak, etab.
- Behatokiaren jardueren eta emaitzen komunikazio- eta hedapen-gune etengabe bat ireki eta mantentzea.
- Beste erakunde eta organo batzuen jardueren, proiektuen eta programen berri ematea, genero-indarkeriaren arloan egiten diren ekintzak ezagutzera emateko.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren fenomenoak ikusgarri egitea eta haren gainean sentsibilizatzea.

Buletina-BGIBra edonor sar daiteke webgunetik, eta unean uneko argitalpena posta elektronikoz jakinarazten die erakundeetako, organizazioetako eta elkarteetako ordezkariari eta banaketa-zerrenda horretan sartzeko eskatu duten partikularrei. Hona hemen zerrenda hori osatzen duten kideak:

- Bizkaiko toki-erakundeek Gizarte Ongizateko eta Berdintasuneko arloetako pertsonal politiko eta teknikoak.

- Behatokiaren osoko bilkurako kideak.
- Behatokiaren Adierazleen Lan Taldeko kideak.
- Bizkaiko Batzar Nagusietako Gizartekintza Batzordeko kideak (VII. eta VIII. agintaldiak).
- Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen elkarteak.
- Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzeko lan egiten duten elkarteak.
- Behatokiko profesional eta erakunde ordezkariak.
- Genero-indarkeriaren azterketa eta ikerketarekin lotutako pertsonak, argitalpena interesatzen zaienak.
- Argitalpena jaso nahi duten pertsona eta erakundeak.

12. zk.an (martxoan argitaratua), Eusko Jaurlaritzaren Zigor Betearazpeneko zuzendari den Xabier Etxebarria Zarrabeitia jaunari egindako elkarrizketa jasotzen da buletinaren hasieran. Elkarrizketan, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuez (BLZ) eta justiziaren arloan genero-indarkeriaren biktimei ematen zaien trataeraz jardun zen, eta alderdi hau nabarmendu zuen: biktimei laguntza eta babesa ematen esku hartzen duten eragile guztien arteko koordinazioa. Horrez gain, BGIBren 2004-2008 epealdiko Ebaluazioaren emaitzak ere jasotzen dira, eta “Familian Esku-hartzeko Programa, Etxean Indarkeria erabiltzen duten Nerabeei Laguntzeko” izeneko ematen da ezagutzera, urte hasieran Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Sailak martxan jarria.

2009ko ekainean, buletinaren hamahirugarren edizioa Cristina Fabré Rosell andreari (Etxeko eta Genero Indarkeriaren aurkako Behatokiko atalburua Botere Judizialaren Kontseilu Nagusian) eta Luz Entrena Vázquez andreari (genero-indarkeriaren arloko koordinatzaile aditua EUROsociAL Justicia ekimenean, Europar Batasunak abiarazitakoan) egindako elkarrizketarekin hasi zen. Bertan, Etxeko eta Genero Indarkeriaren aurkako Behatokiari eta EUROsociAL Justicia ekimenari buruz mintzatu ziren, bai eta Latinoamerikan Gizarte Kohesioa bultzatzeko Eskualde Programari buruz ere –hilabete batzuk lehenago azken horretan parte hartzeko eskatu zitzaion BGIBri, hain zuzen—. Zenbaki honetan, “Bizkaiko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundeen jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak” izeneko dokumentua ere argitaratu zen, BGIBk egina, bere ibilbidearen lehen lau urteetan egindako lanaren ondorio gisa; jaso dira, baita ere, EAEko koordinazio-esparru berria zehazten duten lehen lerro nagusiak (koordinazio-esparru berria *etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko II. Akordioa* sinatu ondoren ezarri da)

Iraileko zenbakian, buletinak egindako galderei erantzuten diete María Silvestre Cabrera eta Mariola Serrano Argüeso andreek. Lehena Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria da, eta bigarrena, Eusko Jaurlaritzaren Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzako burua, eta bi-biek hartu berri dute kargua; horrez gain, Lege-aholkularitzaren, laguntza psikologikoaren, familiako esku-hartze espezializatuaren eta harreraren arloetan indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko dauden baliabideei buruz BGIBk egiten duen katalogoaren urteko edizioaren berri ematen da; eta "Atzeritar etorkinen arteko genero-indarkeriari erantzuteko eta indarkeria prebenitzeko plana, 2009-2012" izenekoak zehazten duten gakoak jasotzen dira.

Urtea amaitzeko, buletinaren 15. zk.an elkarriketa bat egiten zaio Marta Higuera Garrobo andreari, Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Herri Administrazio Saileko zuzendaria bera. Bertan, Justiziaren ikuspuntutik genero-indarkeriaren arloan esku hartzeari buruz mintzatzen da; BGIBk Bizkaian gizarte-, polizia- eta justizia-arloetan emakumeei emandako laguntzari buruz egiten duen urteko txosteneko berrikuntza nagusiak aurkezten dira, eta edizio horretan, hain zuzen, atal deskribatzaile bat gehitu da; eta NBEko idazkari nagusiak 2008-2015 epealdirako plazaratutako "UNITE To End Violence against Woman" kanpainaren baitan UNIFEMek 2009ko azaroan indarkeria sexistaren aurka egindako deia helarazten da.

### **Eranskinak kontsultatzeko:**

[http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero\\_Indarkeria/ca\\_index.html](http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/ca_index.html)

[Buletina-BGIB 12. zk.](#)

[Buletina-BGIB 13. zk.](#)

[Buletina-BGIB 14. zk.](#)

[Buletina-BGIB 15. zk.](#)

### **m. Gomendioak egitea**

Erakunde publikoek genero-indarkeriaren arloan eskaintzen dituzten zerbitzuei buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak egiteari dagokionez Behatokiak dituen helburuak betetze aldera, zeregin hori Adierazleen Lan Taldeari egoztea erabaki zen 2008ko urtarrilaren 10eko osoko bilkuran.

Lan-taldeak, egindako lanaren ondorio gisa, “Bizkaiko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundeen jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak” izeneko dokumentua egin zuen; 2008ko abenduaren 15ean aurkeztu zen osoko bilkuran, eta Behatokia osatzen duten erakundeek aurkez zitzaketen alegazioen zain geratu zen.

Alegazioak aurkezteko epea amaitu ondoren, dokumentuaren azken bertsioa 2009ko apirilean egindako osoko bilkuran onartu zen.

Dokumentua Behatokiaren webgunean dago eskuragarri, eta bi bertsio kontsultatu daitezke: testu osoa eta argitalpenaren sintesia. Esku-hartze proposamenak bi multzotan banatzen ditu:

- I. Emakumearen aurkako indarkeriaren prebentzioari buruzko gomendioak (lehen mailako prebentzioa)
- II. Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntzari buruzko gomendioak
  - indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko gizarte-zerbitzuen hobekuntza;
  - emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu-bilketaren hobekuntza;
  - profesionalen prestakuntza emakumeen aurkako indarkeriari buruz;
  - Erakundeen arteko koordinazioa.

Dokumentua formatu elektronikoan hedatzeaz gain, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Sailak dokumentuaren sintesia jasotzen duen argitalpen bat egin du ohiko formatuan (paperean), eta biktimei laguntza ematen jarduten diren erakundeei banatu zaie.

**Eranskinak kontsultatzeko:**

[http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero\\_Indarkeria/ca\\_index.html](http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/ca_index.html)

[Bizkaiko emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko erakundeen jokabideari buruzko gomendioak eta hobetzeko proposamenak](#)